

Sakatu 1



ANE LABAKA MAYOZ
BERTSOLARIA

Azkenaldian gero eta luzeagoak zaizkit norabait hots egin eta telefonoz bestalde giza-ahots ez-automatikoren bat aditu bitarteko itxaronaldiak. Robotizatutako agur formulek atezuan jarri ohi nautela sentitzen dut hasiera-hasieratik, eta lasaitu nadin belarriratu uste didaten melodia errepikakorrak ere ez du normalki ni are gehiago urduritzeko ez beste ezertarako balio izaten.

Presazko ezer ez zenez gero, lasaitasunez hartzen ahaleginduko nintzela erabaki nuen, halabeharrez. Egun osoa igaro nuen mugikorrari itsatsita eta hutsarte bat sortzen zitzaidan aldiro lotu nintzaion zenbaki segida berbera behar beste aldiz markatzeari. Deika eta deika jardun nuen, ez dizuet esango zehazki nora. Ez dizuet esango zehazki nora, leku jakin bat izan zelako baina izan zitekeelako beste bat; izan zitezkeelako beste hainbat eta hainbat.

Lehen aldiz deitu nuenetik bertatik suertatu zitzaidan zerbait arraro samar. Erantzungailuko ahotsak aukera desberdinak proposatu nahi zizkidan, nonbait, eta hizkuntzaren inguruan galdegin

Musika, musika, eta musika gehiago, harik eta guztiz gogaitu nintzen arte. Biharamunean, jadanik nahikoa itxaron zuela iritzita-edo, atzamar erakusleak bere kasa egin nahi izan zuen 2 teklarainoko jauzia.

zidan beste ezer baino lehen. Euskaraz erantzutea nahi baduzu sakatu 1, eta hurrenkerari zegokionean behintzat euskara lehenetsi izanak harritu ninduela baina ondo bidean ez nindukeela harritu behar pentsatu nuen neure baitarako. Euskaraz erantzutea nahi baduzu sakatu 1, eta esaldia amaitzerako neukan atzamar erakuslea 1 teklaren gainean.

Zenbaki bidez erantzun beharreko beste pare bat galdera etorri ziren jarraian eta, horien ostean, musika.

Musika, musika, eta musika gehiago, harik eta guztiz gogaitu nintzen arte.

Biharamunean, jadanik nahikoa itxaron zuela iritzita-edo, atzamar erakusleak bere kasa egin nahi izan zuen 2 teklarainoko jauzia. Matxinatu egin zitzaidan, eta ezin izan nuen eragotzi. Musikaren txanda iritsi zen orduan. Bezperako melodia sarkor bera zen baina, zorionez, ez zen bezperan bezainbeste luzatu. Emakume ahots batek eten zuen segundo gutxiren buruan. Gazteleraz zuzendu zitzaidan, noski. Neuzkan zalantzak azaldu nizkion eta monotonía aire batez egin zituen nirekikoak. Deiak bi minutu eskas iraun zuen.

Telefonia eskegi nuenean, pantailari begira geratu nintzen une batez. Adibide egokia iruditu zitzaidan gutaz hitz egiteko. Gure herria alderik alde zeharkatzen duen diglosiaz. Hiztunon burugogkeriaz, galarazten diguten denboraz, eta, azkenetako, etsi-etsian amore eman behar izateak dakarren frustrazio metatuaz. ●

AMU A
Ximun Fuchs · Maite Larburu · Manex Fuchs
KOMEDIA SENTIMENTAL POLITIKOA
AXUT.EUS

IRAILA	AZAROA
29 Iruñea	4, 5 Hendaia
	10 Larresoro
URRIA	14 Lezo
1, 2, 3 Donostia	9 Zumaia
5, 6 Bilbo	20 Hiriburu
10 Donibane Lohizune	28 Aloze
16 Berriz	
22 Zarautz	
24 Hondarribia	
29 Azpeitia	
30 Barakaldo	
31 Lesaka	